


# PR-Gi 3009

## Aizkorriko ataria

18,4 Km / 6 h 10 min

**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




## Profila
Perfil

Track altuera ( m )
Altura Track ( m )
900
800
700
600
500
400
300
0
2
4
6
8
10
12
14
16
18
Distantzia ( km ) | Distancia ( km )
a
b
c
d
Luzera | Longitud
18,4 km
Desnibela | Desnivel
+748 m / -754 m

## MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE | + info MIDE |
|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 2 | 3 | 4 | 6 h 10 min | www.mide.montanasegura.com |
| Arrisku-faktore bat baino gehiago dago<br>Hay más de un factor de riesgo | Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | Bide mailakatua edo zoru irregularra<br>Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares | 6 eta 10 ordu arteko ibilaldi jarraia<br>De 6 a 10 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK | |

## Bide-markak
Señalización

- Ibilbidearen jarraipena — Continuidad de sendero
- Norabide aldaketa — Cambio de dirección
- Norabide okerra — Dirección errónea

## + INFO

Praktika onen dekalogoa — Decálogo de buenas prácticas

www.gipuzkoanatura.eus — Trackak eskuragarri — Tracks disponibles

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

- **Txakurrak beti lotuta eraman.** Los perros deberán ir atados.
- **Saiatu mendira bakarrik ez joaten.** Intenta no ir nunca solo al monte.
- **Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.** Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.
- **Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.** No abandones ni entierres la basura.
- **Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.** No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.
- **Animaliak larratzen** Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

- **Ibilbide hasiera** — Inicio de sendero
- **Aisia-lekua** — Area recreativa

# PR-Gi 3009

## Aizkorriko ataria

Aizkorriko Atari den Zegamatik abiatuz, antzina erromes, bidaiari eta gudariek jarraitu zuten bidea duzu honakoa. Kontserbazio bereziko eremu izendatua izan den Oria ibaia izango duzu bidelagun lehen kilometroetan eta Aizkorri magaleko baso, larre, ermita zein artzain - etxolena ondoren.

El camino que estás siguiendo es el mismo que los peregrinos, viajeros y gudaris de antaño recorrían partiendo de Zegama, la entrada a Aizkorri. El río Oria, designado como zona de especial conservación, será tu compañero en los primeros kilómetros, y a continuación, los bosques, prados, ermitas y cabañas de pastores te acompañarán en las faldas del Aizkorri.

## Interes puntuak | Puntos de interés

a



AIZKORRIKO INTERPRETAZIOA ZENTROA (ZEGAMA): Anduetza baserri ikusgarrian, Aizkorriren magalean bertan, dago kokatua zentroa. Bertan, natura eta paisaia kulturala lantzen dira eta, bereziki, basoarekin zerikusia duten gaiak. Zentzu horretan, 170 espezie baina gehiago dituen xiloteka bat ikus daiteke zentroaren erraietan. Baina, baita ere, zegamarrek natura gunearekin izan duten erlazioa azaleratzen da. Interesa duenak inguruko produktuak erosteko aukera ere izango du.

CENTRO DE INTERPRETACIÓN DE AIZKORRI (ZEGAMA): El centro se encuentra, en las faldas del Aizkorri, en el espectacular caserío Anduetza. En él se trabajan la naturaleza y el paisaje cultural, y especialmente los temas referentes al bosque. En ese sentido, se puede visitar una xiloteca, situada en las entrañas del centro, que posee más de 170 especies. Pero, también se trata la relación que han mantenido los zegamarras con el espacio natural. El que tenga interés podrá adquirir productos de la zona.

b



SANCTI ESPIRITUS BASELIZA: San Adriango baseliza eta Sancti Spirituseko baseliza hau oso gertu daude bata bestearengandik. Donejakue Bideko erromesentzat atsedenleku eta ospitale izan ziren biak ala biak. Ahozko tradizioaren arabera, Sancti Spiritus baseliza Tenplarioek eraiki zuten. Kanpoaldean estilo errenazentistako ur bedeinkatu ontzi bat dago. Hitz egiteko zailtasunak zituzten umeak ona ekartzen zituzten santuak lagun zitzan.

ERMITA DE SANCTI ESPÍRITUS: La ermita de San Adrián y la de Sancti Espíritus se encuentran muy próximas entre sí. Ambas fueron lugar de descanso y hospital para los peregrinos del Camino de Santiago. Según la tradición oral, la ermita de Sancti Espíritus fue construida por los Templarios. En su exterior existe una aguabenditera de estilo renacentista. Los niños que tenían problemas para hablar eran traídos a este lugar para que fueran ayudados por el santo.

c



OAZURTZAKO TXABOLAK: Norteko Ferrokarrila eraikitzen ari ziren langileentzat egin zituzten txabola hauek. Beste lan batzuen artean, ia hiru kilometroko Oazurtzako tunela eraiki zuten, oraindik ere Gipuzkoako luzeena dena. Tunel honen bitartez Zegamako geralekua eta Brinkolako (Legazpi) geltokia lotu ziren. Lanak 1860-1863 urteen artean egin ziren eta, alde bietatik batera hasi ziren lanean, garai hartarako suposatzen zuen ingeniaritza zailtasunekin.

CHOZAS DE OAZURTZA: Estas chozas se hicieron para los trabajadores que estaban construyendo el Ferrocarril de Norte. Entre otros trabajos, construyeron el túnel de Oazurtza, que con sus casi tres kilómetros, sigue siendo a día de hoy el túnel más largo de Gipuzkoa. Mediante este túnel se unieron el apeadero de Zegama y la estación de Brinkola (Legazpi). Los trabajos se realizaron entre 1860-1863 y se comenzaron por ambos lados simultáneamente, con lo que eso suponía de dificultad para la ingeniería de la época.

d



MURGIZELAI PARKEA: Arrieta auzoan kokatzen den gune hau, otorduak egiteko, atsedena hartzeko edo/eta jolasteko, hau da, aisiarako eta lasaitasunerako toki aproposa da. Hori guztia, ingurune ikusgarri batean egiteko aukera eskaintzen du gainera. Hala ere, orain den parkea bihurtu baina lehen, bertan hondakindegi bat zegoen. Moldaketa eta txukunketa lan horiek udalak egin zituen 1996 urtean. Ordutik, urteetan zehar, zenbait obra jasan ditu, gaur egun dagoena eraiki arte.

PARQUE MURGIZELAI: Situado en el barrio Arrieta es un lugar muy adecuado para comer, descansar y/o jugar, esto es, es un lugar apropiado para el ocio y la tranquilidad. Además, ofrece la posibilidad de hacer todo eso en un entorno espectacular. A pesar de ello, antes de convertirse en el parque que es hoy en día, en este lugar había una escombrera. Los trabajos de adecuación y mejora los realizó el ayuntamiento en 1996. Desde entonces se han realizado diversas obras, hasta la constitución actual.

arazi

ZEGAMAKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gipuzkoako Mendizale Federazioa